

## AURKEZPENA

Mundua, gaur egun ezagutzen dugun bezala, gainbehera hutsean dago. Arazoak han eta hemen ageri dira eta irtenbideak urruti daude. Amildegirantz zuzen-zuzen murgiltzen gabiltzala ohartzen garen heinean, kontrako norabidea hartzen saiatzen gara, baina, aurrera pausu bat ematen dugun bakoitzean bi atzera ematen ditugu. Badago jende multzo bat argiaren bila ibiltzen direnak, tunel luze honen amaieran argia ikusten dutenak. Ama lurra errautsetatik birsortzea ikusi nahi duten arren, ez dira irtenbiderik aurrera eramateko gai, izan ere, irtenbide hauek mundu osoaren koordinazioa eta parte hartzea eskatzen dute, bidean aurrera giteko.

Argi hura bilatzen gabiltzan horietakoak gara gu, gizarte eta naturaren irtenbidea eraikitzeko griñarekin. Irtenbide hori eraikitzeko arrakala baten bila, gure enpresa sortu dugu: SOUTHERN COAST, arropa marka solidarioa. Diseinu berritzaileak eta originalak aurkeztuko ditugu. Gure produktuak kalitate onekoak dira, lanpostu duinak bermatzen dituztenak, material berrerabilia erabiliz eta salmenta hauetatik sortutako irabazien zati bat mundua aldatzeko erabiliko da.

Etxe, Mada, Goros eta Uri gara, enpresa honen CEOak. Pertsona ekintzaile eta langileak gara, hortik dator gure enpresaren nahia edo helburua. Txikiak ginenetik, naturak erabat erakarri gaitu, ondorioz, naturarekin kontaktuan egon gara oroimen daukagunetik. Durangon eta Izurtzan, gure herrietan, naturaren presentzia nabarmena den arren, denbora oso laburrean izan bada ere, gure inguruneetan gizarteak izan duen inpaktua ikusi ahal izan dugu, bai gure begiekin eta bai gure gurasoek kontatutako istorioekin. Hortaz, badakigu gure inguruen eta munduko beste toki askoren egoera oso txarra dela.

Izugarrizko erantzukizun hori hartzeko jaioak izan gara. Gure istorioa idazteko garaia da!

